



**707/2018 EBAZPENA, 2018KO IRAILAREN 27KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, HONEN BIDEZ IREKITZEN DA 2018KO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDETAN IZENA EMATEKO EPEA, 2014-2015EKO ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZAN DEITUTAKO KATEGORIETARAKO.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak maiatzaren 28an emandako 1135/2015 Ebazpenaren bidez (EHAA, 102 zk., 2015eko ekainaren 3koa), onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak.

2014-15eko EPEaren izapidetzea amaitu da; hortaz, azken Enplegu Publikorako Eskaintza horretatik sortutako kontratazio-zerrendak irekitzea beharrezkoa dela iruditu zaigu.

Horiek guztiak horrela,

**EBATZI DUT:**

**Lehena.-** 2018ko aldi baterako kontratazio zerrendak irekitzea, 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio zerrendak egiteari eta kudeatzeari buruzko 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalarekin bat etorritz.

**Bigarrena.-** Aldi baterako kontratazio-zerrenda berriak 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian arautzen dira (106. EHAA, 2011ko ekainaren 6a). Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak sortzeko eta kudeatzeko xedearekin.

Era berean, zerrenda horiek 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Laugarren Atalean aurreikusitakoarekin bat etorritz barematuko dira eta 2014-15eko EPEan deitutako kategoriei dagokienean indarrean dauden zerrendak ordezkatuko dituzte.

**Hirugarrena.-** Eskaera soilik modu telematikoz egin ahal izango da, Osakidetzako web orriko <http://www.osakidetza.euskadi.eus> aldi baterako kontratazio-zerrendetako aplikazioaren bidez, ibilbide hau egin behar da: Profesionalak/Hautaketa eta Horniketa/Aldi baterako kontratazioa/2018ko kontratazio-zerrendak/Eskabidea

**Laugarrena.-** Eskaerak **2018ko urriaren 5etik 31ra arte** egin ahalko dira, biak barne.

**Bosgarrena.-** Zabaltzen diren kontratazio-zerrendak, bertan izena eman dezaketen pertsonak Kontratazio-zerrendetan onartua izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa eta izen-ematearekin lotutako bestelako alderdi batzuk izena emateko epea zabaltzearekin batera esandako web orrian argitaratuko diren jarraibideetan zehaztuko dira.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 27an



Osakidetza

Juan Carlos Soto Pérez  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Jz. Juan Carlos Soto Pérez  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA